


BIZTANLERIA PIRAMIDEEN AZTERKETA

IRAKURRI ETA ULERTU AZPIAN DITUZUEN ARIKETAK EGITEKO:

HERRIALDEA, URTEA ETA POPULAZIOA




• GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEAK HIRU TALDETAN BEREIZTEN DIRA:

- 0-14 URTE: GAZTEAK
- 15-65 URTE: HELDUAK
- 65-100 BAINO URTE GEHIAGO: ADINEKOAK

• IZAR GORRIEI ★ BEGIRATZEN BADIOGU ONDORENGO INFORMAZIOA ATERAKO DUGU:

- 30-34 urteko 2.000.000 gizonezko daude gutxi gorabehera.
- 30-34 urteko 1.900.000 emakumezko daude gutxi gorabehera.

• **FORMA AZTERTU. 3 FORMA IZAN OHI DITUZTE.**



1. Mailakako Piramidea, pagoda itxura daukana.

- Jaiotze-tasa handia da. Haur asko jaiotzen dira.
- Bizi-itzaropena (esperanza de vida) baxua da. Jende asko ez da zahartzarora (vejez) iristen.
- Herrialde azpi-garatueta (sin desarrollar) gertatu ohi da, hau da, industria gutxi dagoen herrialde txiroetan.

2. Atzerako Piramidea, erreboil itxura daukana.

- Jaiotze-tasa txikia da. Haur gutxi jaiotzen dira.
- Bizi-itzaropena (esperanza de vida) altua da. Adineko jende asko dago, hau da, zahar asko bizi herrialde hauetan. Zuek ulertzeko, aiton-amona asko daude.
- Herrialde garatueta (naciones desarrolladas) gertatu ohi da, hau da, industria asko dagoen herrialde aberatsetan (ricos).

3. Piramide Geldia, edo kanpai itxurakoa.


- Jaiotze-tasa nahiko altua da. Haur asko jaiotzen dira.
- Bizi-itzaropena (esperanza de vida) gero eta altuagoa da. Heldu eta haur asko daude. Zaharrak ere gehitzen ari dira.
- Garatzen ari diren herrialdeetan gertatzen da. (naciones que se están desarrollando). Gero eta industria gehiago dute.

IKUSI BIDEO HAU: <https://www.youtube.com/watch?v=nIQBBREcd4c>

PIRAMIDEA AZTERTZEKO PAUSUAK:

1. PAUSUA: Nongoa da, noiz egin da eta bertako populazioa. Emakumezko edo gizonezko gehiago?

Adibidea: Biztanleria piramide hau Espainian egin zen 2012. urtean. Urte horretan Espainiak 47.265.321 biztanle zituen. Horietatik 23.298.356 biztanle gizonezkoak ziren eta 23.966.965 emakumezkoak. Beraz, emakume gehiago zegoen Espainian.



2. PAUSUA: Sexuaren arabera aztertu. Begiratu gazte, heldu eta adinekoen kopurua antzekoa den.

Adibidea: Gizonezkoen eta emakumezkoen gazte eta helduen kopurua oso antzekoa da. Adinekoen kasuan ordea emakumezko gehiago daude gizonezkoak baino. Emakumeak beranduago hiltzen direla ondoriozta dezakegu.


3. PAUSUA: Forma.

Adibidea: Piramideak atzerako piramide edo erraboil itxura du. Ondorioz:

- Jaiotze-tasa txikia da. Haur gutxi jaiotzen dira.
- Bizi-itxaropena altua da. Adineko jende asko dago, hau da, zahar asko bizi herrialde hauetan.
- Herrialde garatu bat da, hau da, industria eta dirua dago herrialde horretan.

1. ARIKETA: Egin jolas honetako ariketa.

2. ARIKETA: Aztertu piramide hau goiko ereduari jarraituz.




1. PAUSUA: Nongoa da, noiz egin da eta bertako populazioa. Emakumezko edo gizonezko gehiago?

2. PAUSUA: Sexuaren arabera aztertu. Begiratu gazte, heldu eta adinekoen kopurua antzekoa den.

3. PAUSUA: Forma aztertu.

3. ARIKETA: Aztertu Uruguako piramide hau.



1. PAUSUA: Nongoa da, noiz egin da eta bertako populazioa. Emakumezko edo gizonezko gehiago?

2. PAUSUA: Sexuaren arabera aztertu. Begiratu gazte, heldu eta adinekoen kopurua antzekoa den.

3. PAUSUA: Forma aztertu.